

Nere aitona

Euzkadi [Caracas], 69. zk., 1950-04: 41-43.

Oraindik mutil-koskorra nitzala il zan, gizarajoa... Orduan jantzi arazi zizkidaten lenengo oñetako beltzak eta oraindik begien aurrean daukaten mantal txuri-beltx bat. Arritzekoa izango da, bañan ez naiz gogoratzen negarrik egin nuean edo ez. Nere guraso ta zeñedeen negar eta karraxiak bai, gogoratzen zaizkit; atzo gertatutako zerbait ba'litzake bezela dakazkit gogoan ango zotin eta ixilpeko mar-mar bildurgarri aiek.

– Aitona esnatuko da ta, zaude ixilik...

Ikastolara joan gabe geratu nitzan egun artan; ispillu guziak zapi beltzez eztali zituzten, eta arpegian alako gauz illun bat zekarkiten ezagun eta ez-ezagun asko etorri ziran egun artan etxera. Jaunak eta aitonak barkatuko al'ziraten onezkero, bañan ainbeste gauz berrirekin pixkaren bat puztu nitzala uzte det...

Askotan oldoztu izan det geroztik egun artaz eta ainbat aldiz damutu zait negarrik ez egiña. Gero ixuri ditudan malkoak kontuan artuko al zituan zeruan dagoan nere aitona onak!...

Nere aitona etzan besteak bezelakoa; nik ez det beintzat alako beste bat ezagutu. Irakurleak barka nezala on guzia neretzat artu ba'det, bañan nerea zalako irudituko zitzaidan ain ona ta beste edozein ez bezelakoa. Berak beste ainbeste berearengatik esateko eskubide osoan utziko det eta, tia!, kito!...

Nere aitona agotza zan eta Joseba Deunaren antz oso-osokoa izan zedin, berak bezelako bizar luze ta txuriak eztaltzen zion arpegi erdia. Bizar tartetik irriparrez itzegiten ziran beti, ortzik gabeko oiak erakutziaz. Xaguak jan omen zizkion! Bere begi urdin aietan ba'zuan alako biguntasun berezi bat eta etzan an gora beñere asarrerik igo neretzat.

Batean burrukan ibiltzeko ezpata bear nuala, bestean lau kurpilleko goitik-bera askar aietako bat egin nai nuela, ta aitona gizarajoa ni baño umeago biurtu ta, nere nai guziak bete naiean, bere egin-bearrak uzten zituan askotan.

Egun batean... Ura eguna! Osteguna zan eta ia!... Ba, ostegun arratsalde batean nere aitona agindu bat eman ziran:

– Joan zaitez Goia'ren etxera bai ta eman zaiozu maiaren ank au... Zenbat dan galdetzen ba'dizu, ez dala ezer, esan-agindu ziran.

Goia, nere aitona lagun aundi bat (orduan danak ziran, errian, lagun) gizaseme larden eta lodi bat zan, eta arretaz gañera bere bularrean euki ezin zuan biotz aundi baten jabea.

– Zenbat dala esan dizu aitona?

– Ezer ez, ez duala ezer bear esan dit.

– Ume, zatoz onera. Tia, eman zaiozu au, ez du beti gizonak alperrik lanean ari bear...

Ta Goia'k bi pestako zillar aundi bat eman ziran eskura. Zuzen-zuzen joan nitzan aitonaren berriz eta an eman nion bere lagunak ordaindu ziran dirua.

- Ez detala ezer bear esan dizut. Ia, biurtu zaiozu berriz diru ori; azkar ordea!
- Aitonak esan dit ez duala ezer bear, utsa dala lantxo ori...
- Gorde zazu ba'orduan, tira, zuretzat!

Bañan nik nola artuko det ba'orrenbeste diru! Ez jauna, berorreri biurtzeko esan dit.

- Etzaitzela mokoloa izan, gorde zerbait erosteko; ez al'dezu agindua ondo bete?... Orduan zuk irabazi dezu! Bai, bai; zoaz, ume, zuretzat!

Ara emen nere lanak. Ia ostegun arratsalde guzia mindu ziran. Zer egin bear nuen nik ainbeste zillarrekin?... Aitonarena joaten ba'nitzan, berriz biurtu asiko ziran. Nere gurasoei ematen ba'nien, berdin. Gordetzen ba'nuen... Orixe! Gorde egingo nuan!...

Asmo au artu bezin laister, nere arrokerian, lagun guziei erakutzi nien zillarrezko bi pestakoa. Ura aberaztasuna! Bukatu ziran, arratsalde artako jostaketak.

Amar lagun izango nituan aldamenen eta bakoitzak ba'zuan diru arekin zer gauz erosi liteken asmoa buruan. Nere ezezkoak asarretu zituan, azkenik, guziak eta dana aitonari esango ziotela, bota zidaten.

Azkenean, zer egingo nuan ba! egin nuan nere ez bearra. Erriko denda guziak jira genituan eta batean gozoak, bestean arrantzako amuak; emen pikuak, an..., ez dakit nik zer erosi nuan an! Zenbat gauza erosi nitekean orduan bi pestarekin!...

Nere lagunen patrikak eta nereak gauzez bete ta gero ere geratzen zaizkidan oraindik txanpon batzuek eta etxera bildurrez danen artean zabaldu nituan.

Eta zoritxarrean! Gau artan bildu ziran gure etxean nere lagunen ama guziak. Ni goiz oeratu nitzan. Apaltzeko gogorik gabe nitzan eta amak, arpegi txarra ikusirik, oeratu ziran bereala. Ura keska!

Nere amak jeiki arazi ziran bereala. Ainbeste emakumeren aurrean aitorketa egin bear izan nuan; bañan, alperrik, etziraten, sinistu nai izandu. Eman zizkidaten bi edo iru masalleko ta nere karraxiekin batean azaldu zan, ez dakit nik nondik, nere aitona. Ura poza! Beraren babesera bildu nitzan laizter eta an entzun nion nik aitonari lenengo gezurra. Ura gezurra, ordea! Diru arekin gozoak erosteko baimena berak eman zirala! Aiton gizarajoarekin ekin zioten gero... Ez nuan berelakoan lo artu gau artan, bañan aitonarekin oeratu nitzan da ez nuan batere bildurik izan. Ura aitona nerea, ez det nerea bezelako aiton onik esagutu. Zuri ere, irakurle, alako bat opa dizut.

Goian bego.

Erritar [Martin Ugalde]